


“Euskararen egiazko misterioa ez da jatorria, iraupena baizik”-Koldo Mitxelena

·Zure ustez, zenbateraino garrantzitsua da euskara munduan? Lan hau egin aurretik, euskara garrantzia ez zeukala uste nuen, eta agian zuk ere hori uste duzu, baina, erreportaje hau irakurtzen bukatu ondoren, beharbada zure ustea aldatuko da.

Non hitzegiten da euskara?

Euskara Euskal Herrian (EH) hitzegiten da. EH, Euskadik (Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba osatuta), Nafarroa Garaiak eta Ipar EHk (Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa osatuta) osatzen dute.



Euskararen ofizialtasuna

1979ko Autonomia Estatutuaren arabera, Euskal Herrian euskara hizkuntza ofiziala da, gaztelaniarekin batera. Izan ere, Euskal Herrian, gaur egun ere, hezkuntza sisteman euskara derrigorrez irakasten da. Nafarroan, ordea, iparraldean bakarrik da ofiziala, gaztelaniarekin batera. Lurralde frantsesean, euskarak ez du estatus ofizialik Frantziako

Errepublikako Konstituzioaren arabera, frantsesa Frantziako hizkuntza ofizial bakarra bezala ezarri zuelako.


https://eu.wikipedia.org/wiki/Euskararen_ofizialtasuna

Munduko para koloretsua

Mundu mapa onetan ikusi dezakegu hizkuntza batzuen hitzegiten den lekua. Kolore bakoitzak hizkuntza bat adierazten du, obeto esanda, munduan hiztun gehien dituzten hizkuntzak adierazten ditu.

Adibidez, gorriak ingelera adierazten du, oria gaztelera, morea errusiera...

<http://www.eimakatalogoa.eus/20962/tribuarenberbak/01-jarduera1.html>



Zenbat hizkuntza dago munduan?

Munduan 7.000 milioi biztanle daude, hau da, 7.000 milioi hiztun daude. Orduan, zein da hiztun gehien dituzten hizkuntzak?

Wikipediak dioenez, munduan gehien hitz egiten den hizkuntza ingera da, 1132.4 milioi hiztunekin, bigarrena txinera da, 1116.6 hiztunekin, hirugarren postuan india dago, 615.5 milioi hiztunekin, laugarrena gaztelera da, 534.3 milioi hiztunekin, eta, azkenik, bostgarren postuan frantsesa dago, 279.8 milioi hiztunekin.

https://es.m.wikipedia.org/wiki/anexo:idiomas_por_el_total_de_hablantes

Eskalaren Jokoa

Hiztun kopurua kontuan hartuta, zein zenbakitan jarriko zenuke euskara 0tik 10erako eskalan?

Kontuan hartuta txinera, munduan gehien hitz egiten den hizkuntza 10. postuan dagoela eta 0 postuan, berriz, azken hiztuna galdu zuen hizkuntza dagoela .

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----

Seguruenik 5.postuan baino beherago jarri duzu baino erantzuna

9. postuan dagoela da, hona hemen Kike Amonarrizeren azalpena:

<https://youtu.be/DjUUbX9Mx-A>

Kaleetara nik egin dizudan galdera galdetzera atera zen Kike Amonarriz, hemen duzu jendearen erantzuna:

<https://youtu.be/Hc3-2htiP8g>

Zergatik ikusten dugu gure burua horren txiki?

Euskara 9. postuan badago, zergatik gehienok uste dugu 5etik behera dagoela? Hauek dira jendearen erantzunak:

- Euskara txikia delako.
- Jendeak ez duelako bultzatzen.
- Inguruko hizkuntzak handiagoak direlako, eta hiztun gehiago dituztelako.
- Euskal Herrian biztanle gutxi daudelako.
- Munduan 700 hizkuntza izanik, euskara oso txikia ikusten dugulako.
- Euskal Herriko biztanle askok erderaz hitz egiten dutelako.

Jon Sarasua ere bere iritzia heman zuen. Berak uste du guk hain txiki ikusten dugula geure burua bi hizkuntza erraldoiekin konparatuta (gaztelera eta frantsesa) oso txikiak garelako, baina berak esaten duen moduan “munduko batez bestekoarekin esan dezakegu ez

garela harri koxkorrak, harri koxkorrak gerala”

<https://youtu.be/nmSPENn2ii4>

Calvet Barometroa

Calvet Barometroak 500 mila hitzunik gora dituzten munduko hizkuntzen bizi-indarra neurtzen du 11 aldagien arabera; guztira 563 hizkuntza aztertzen ditu, eta euskara 51. postuan kokatuta dago, mazedoniera eta letoniera artean.

43	swahili	3.924
44	afarais-Tosk	3.908
45	marathi	3.831
46	occitan	3.829
47	lithuanian	3.817
48	ukrainian	3.793
49	galicien	3.771
50	macedonian	3.763
51	basque	3.747
52	leton	3.733
53	telougou	3.726
54	gallois	3.721
55	suise allemand	3.714
56	ibhitain-central	3.675
57	haoussa	3.665
58	bieloruse	3.65

euskara 51.a

Calvet, bere egilea, soziolinguista frantses bat da.



Hauek dira 11 aldaigaiak:

- Hiztun kopurua
- Entropia
- Erabilgarritasuna
- Ofizialtasuna
- Jatorrizko testuen itzulpena
- Xede-hizkuntzaren itzulpena
- Literatura Sari Nazionalak
- Wikipediako artikuluko-kopurua (Wikipediako 160.000 artikuluko daude euskaraz, eta euskara

35.postuan dago, artikuluko kopuruari dagokionez)

- Giza garapenaren indizea
- Ugalkortasun tasa
- Interneteko sarreren kopurua


<https://youtu.be/M-qUQALXkLM>

Euskararen egoera Unescoren arabera

Uneskok desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzak sailkatu ditu, koloreen arabera. Hauek dira koloreen esanahiak:

sun-la	Hizkuntzaren belaunez belauneko transmisioa
kurikibe	Belaunaldi guztiek hitz egiten dute hizkuntza eta belaunez belauneko transmisioak ez du etenik. >> ez da Atlas-ean sartzen
garria	Haur gehienek hitz egiten dute hizkuntza, baina erabileraz zenbait eremutara mugatuta egon daiteke (familia giroa, adibidez).
kuan	Haurrek jada ez dute ikasten ama-hizkuntza gisa.
iskurmena	Aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak bakarrik hitz egiten dute hizkuntza. Gurasoen belaunaldiekoek, ulertu badezakete ere, ez dute beraien artean erabiltzen, ezta seme-alabekin ere.
u larria	Hiztun bakarrak, aiton-amonak eta belaunaldi zaharrenetako partaideak dira, baina gutxitan eta oso modu partzialean darabilte hizkuntza.
gertua	Ez da hiztunik geratzen. >> Atlasak, 1950. urtetik aurrera desagertutako hizkuntzen erreferentzia dakar.

Unescok jartzen du euskara hizkuntza zaurgarri bat bezala, eta Itziar Idiazabalek zergatia azaltzen digu



Itziar Idiazabal, Unesco katedrako zuzendaria da, eta sailkapen

horietara irisketo haintzat hartzen diren faktoreak edo aldagaiak esplkatu zituen eta hauek zirela esan zuen:

- Belaunaldien arteko transmisioa
- Hiztun kopurua
- Zer gauzetarako erabiltzen den hizkuntza hori
- Estatu edo erakunde ofizialak zein babes edo laguntza eskaintzen dieten
- Hiztunen jarrera

Eta abar, berak belaunaldien arteko transmisioa zihurtatua dagoen edo ez aldagai garrantzitsuena dela esaten du.

Gure hizkuntzan oso ondo bereizten dira gauzak, hegoaldean bikote euskaldunetako (harreman horretako 2 pertsonak euskaldunak) transmisioa oso ondo egiten da, ia 100%-ko transmisioa dago.

Hegoaldeko bikote “mistoen” (harreman horretako pertsona bat euskalduna eta bestea erdalduna) transmisioa ia 80%-koa da.

Iparraldean, bikote euskalduna izanda ere, askotan transmisioa galtzen da.

<http://www.unesco.org/languages-atlas/index.php?hl=en&page=atlasmapc>
<https://youtu.be/2nb0BwREzQY>

Nola atera armairutik 500.000 euskaldun?

Imanol Epelde Pagoa irakaslea, idazlea, blogari, musikagile eta youtuberra da.



2018an Imanol Epeldek bideo bat argitaratu zuen YouTuben. Bideoan azaltzen du 750.000 pertsona garelako euskaraz eta erderaz dakigunak. 750.000 pertsona horietatik 40.000 prentsa, liburuak eta diskoak euskaraz kontsumitzen dituztenak, beste 33.000 prentsa euskaraz kontsumitzen dutenak eta urtean 2 liburu euskaraz irakurtzen dituztenak dira eta beste 160.000 ez dute prentsa euskaraz kontsumitzen eta urtean liburu 1 euskaraz irakurtzen dute. Hiru multzoak batuta ez gara 200.000 pertsonetara iristen, hau da, 750.000 euskaldunetatik bakarrik ¼ kontsumitzen dute euskaraz kultura. 500.000 euskaldun baino gehiagok, beraz, ez dute zerbait euskaraz kontsumitzen, eta beraientzako honako aholku hauek ematen dizkie:

- Euskarazko liburu bat irakurri
- Igandean Argia edo Berria aldizkariak irakurri
- Antzerki bat euskaraz ikusi
- Programatu berriz zure telebista eta ETB1 aurrena jarri

·Zure mugikorrean Badok app-a inlatu, euskaraz sortzen den musika guztiaren berri izateko <https://youtu.be/7hpC-x4U1zM>

Hizkuntzaren gaitasuna eta kale-erabilera

Euskararen Datu-Basea euskararen datu estatistikoaren biltegi bat da, Soziolinguistika Klusterrak egindakoa. Beraiek euskarari buruz dagoen informazio estatistikoa biltzen eta publikoki eskaintzen dute. Hargitaratzen diren euskarari buruzko datuetako batzuk gune bakarrean bildu ditu Euskararen Datu-Baseak, Euskal Herri mailako, lurraldekako, eta udalerri mailako datuak eskainiz. Datuak hizkuntzaren gaitasuna eta kale-erabilerari buruz dira, eta hauek dira: EH osoan hizkuntza gaitasuna 43,72%koa da, EAEn 61,43%koa, Nafarroan 24,2%koa eta Ipar EHn 44,55%koa. Bitartean kale erabilera EH osoan bakarrik 8,8%koa da, EAEn 14,8%koa, Nafarroan 6,7%koa eta azkenik Ipar EHn 5,3%koa da.

<http://www.soziolinguistika.eus/edb/>
http://www.soziolinguistika.eus/files/hekn2016- eu_1.pdf

Ondorioa

Gutako askok euskara jakin arren, ez dugu inolako ahaleginik egiten euskara hizkuntza ikusgarriagoa izan dadin, hau da, ez dugu hitz egiten, ez dugu irakurtzen, ez dugu ikusten, ez dugu euskaraz ezer kontsumitzen. Ahalegina egin behar dugu mundu honetako pertsona bakoitzak euskara jakin dezan, misterioz beteriko hizkuntza ederra baita. Espero det erroportai hau irakurri ondoren, zure euskararen garrantziaren ustea aldatu dela eta eskerrik asko irakurtzeagatik.

